

5.a	1. EZAGUTZA FITXA	OBJEKTU TEKNIKOAREN AZTERKETA ETA DISEINUA <i>Jakin behar dudana</i>	
	EZAGUTZAK :	MAILA :	GAITASUNAK :


Funtzioa	1 (« badakit »)	- objektu tekniko bati doazkion funtzioak identifikatu.
Aterabide teknikoak	1 (« badakit »)	- zerbitzu funtzio bat betetzeko hautatua izan den aterabide teknikoa identifikatu.
	1 (« badakit »)	- objektu teknikoetan, zerbitzu funtzio berdina bat betetzeko haututako aterabide teknikoak konparatu.
	2 (« badakit aipatzen »)	- emandako zerbitzu funtzio bat betetzeko egitura edo muntaketa osoki edo parte batez aldatu.

Oinarri bateratua


3	Zientzia eta teknologia desmarta erabili	Burutu, manipulatu, neurtu, kalkulatu, aginduak bete.
3	Hainbat eremu zientifikoetan ezagutzak eta gaitasunak erabiltzen jakin	Objektu teknikoak : azterketa, diseinua

1- FUNTZIOAK


6.ean ikusia izan den bezala, objektu tekniko orok erabiltzailearen beharri erantzuten dio.



Adibidez : etxe baten eraikitzea.

Erabilera funtzioa (erabiltzailea)	Zerbitzu funtzioak (diseinatzailea)	Funtzio teknikoak (diseinatzailea)
Familia bat baldintza onetan aterpetu	 gerizatu	- aro gaiztotik isolatu : teilatu, teilak, murrak, ... - bero-isolamendua (hotza, beroa) - soinu-isolamendua (harrabots) - ohoinetatik gerizatu (alarma)




<p>edozein momentutan ongi argitua izan</p> 	<ul style="list-style-type: none"> - artifizialki argitu (gauaz) - naturalki argitu (egunaz) - argi hori banatu - argiztapen hori manatu - elikatu (edo energia eman)...
<p>e.a....</p>	<p>...</p>

2- ATERABIDE TEKNIKOAK

Funtzio tekniko bakoitzarentzat, diseinatzaileak **BORTXEI** (edo ezin bertzean kontuan hartu behar diren trabak) doazkien **ATERABIDE TEKNIKOAK** konparatu eta hautatuko ditu.

Funtzio tekniko berdin bat betetzeko hainbat aterabide tekniko izan daiteke.

Adibidez : etxe baten eraikitzea.

FUNTZIO TEKNIKOAK	ATERABIDE TEKNIKOAK
<p>Naturalki argitu</p>	<ul style="list-style-type: none"> - leihoak - berinazko leiho zabalak - sabai-leihoak - adreilu gardenak - argi-putzuak 
<p>Artifizialki argitu</p>	<ul style="list-style-type: none"> - kandelak - gasezko lanpa - neoi-hodiak, kontsumo ttipiko lanpak, diodo-lanpak - goritasun-lanpa (gaur-egun debekatuak) - lanpa halogenoak 